

ABERTZALEEN BATASUNA. «Abertzaleak kontuan hartu beharko ditu»

RPR «desegiteko zorian» dagoela dio ABko Etxeberri

«Alliot-Marierekin ados gara Iparraldeko EAJ aski abertzalea ez dela dioenean», dio ABk

Hur Gorostiaga | UZTARITZE

Michel Alliot-Marie RPRko Frantziako lehendakariak bere alderdiko kideak abertzaleekin akordioetara helduz gero alderditik kanporatuak izateko mekanismoak martxan ezarriko dituela adierazi ondoren, «Ipar Euskal Herri barnealdeko RPRko hautetsi andana alderditik kanpo ezarriko ote duen» galdegin zuen atzo Jean Noel Etxeberri, Abertzaleen Batasuneko bozeramaileak. «Gaur egun abertzaleatasuna Ipar Euskal Herrian sustraiturik dagoen alderdia da, eta Alliot-Mariet, nahi ala ez, kontuan izan behar du», zioen Etxeberri.

«RPR alderdi ultrajakobino eta ultrafrantsesa da. Azkenaldian Ipar Euskal Herriko kideei hainbat irizpide ezarri nahi dizkie, baina bide txarretik doaz. Euskal Departamenduaren aferekin Richard Beitiak Hendaiaren dimisioa eman zuen. On-



BOB EDME
Ezohiko biltzar nagusia egin zuen atzo ABk Uztaritzen.

dotik Uztaritzen Daguerre eta Angelun Baratek utzi dute alderdia. Orain Brissonen txanda heldu da», adierazi zuen, eta «RPR desegiteko zorian» dagoela gehitu zuen.

Aitzitik, Alliot-Mariet «hain abertzalea ez den EAJrekin akordioetara heltzeko prest» dagoela erratean «EAJ Iparraldean aski abertzalea ez dela erratearekin ados gaude» esan zuen Abertzaleen Batasuneko ordezkariak; eta 1999ko urriaren 9ko Euskal Departamenduaren aldeko manifestazioan Jean Aniozbehare jeltzalea bandera frantsesdun xingolak manifestari hautetsiei banatzen izan zela azpimarratu zuen.

Proiektu politikoa onarturik

Jean Noel Etxeberri Uztaritzen (Lapurdi) ABk egin zuen ezohiko biltzar nagusiaren ondoren egin zituen adierazpenak. Biltzarrean, azken urtean landu proiektu politikoa onartu zuten. «Proiektu politikoa onarturik, gure hautagaiek programa zehatza eta berritzailea izanen dute hauteskondeei begira. Gainerako alderdiak gonbidatzen ditugu gure proiektua azter dezaten, eta zergatik ez, ideiak kopia ditzaten».

Hauteskunde ondotik, aldiz, proiektu politikoaren kokapenaz eta garapenaz, barne eztabaida abiatuko dute.

LABURAREN

Gaur amaituko dute Ondarroako EHko ordezkariak presoan aldeko baraualdia

Astelehenetik, Ondarroako EHko alkate Loren Arkotxa eta hautes elkarte bereko zenbait zinegotzi, baraualdian daude presoan eskubideen alde, udaletxean, eta gaur amaituko dute. «Presoa giltzarria da bakegintza aurrera eramateko, beste prozesu batzuetan argi ikusi denez», esan du Arkotxak. Gaurko manifestaziora deitu dituzte herritarak. Bestalde, atzo egin zioten ongi-etorria Azpeitian Joxean Astigarra preso ohiari, 350 lagunek, eta Haika erakundeak 100 gazte bildu zituen Ibarren Errepresaliatuak aske lelopean egin manifestazioan.

Iurretako Renault kontzesionario bati eraso egin dio gazte talde batek

Ostiraletik larunbatera bitarteko gauean, 00:30ak pasa zirenean, Iurretako (Bizkaia) Renault kontzesionarioari eraso egin zion gazte talde batek Ertzaintzak atzo azaldu zuenez. Burua estalita zaramaten hainbat gazte su eman zioten kontzesionario horren kanpoaldeko aparkalekuan zeuden hainbat autoari. Eraso horren ondorioz, sei kotxek kalteak izan zituzten, eta suhiltzaileek joan behar izan zuten sorturiko sutea itzaltzera.

EA

Euskal Herrian ere «Ekialde Hurbileko errezeta» erabil dezan eskatu dio Intxaurragak Aznarri

Joseba Aiarza | BILBO

Jose Maria Aznar Espainiako Gobernuako presidentek israel-darren eta palestinarren arteko arazoa konpontzeko elkarrizketarako dei egitea «ez da zilegi», Sabin Intxaurraga EAEko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuak (EA) adierazi duenez, «hemen elkarrizketari uko egiten baitio».

Sailburuaren ustez, kontraesan nabarmena da Aznarrek Ekialde Hurbileko gatazka konpontzeko elkarrizketarako deia egitea, eta aldi berean, euskal gatazka konpontzeko bide hori ixtea. Aznarrek «Ekialde Hurbilerako esportatu nahi duen erreze-ta hori, elkarrizketaren eta negoziazioaren bidea, Euskal Herrian aplikatu behar du».

Presidente espainiarrak hori egiten ez duen bitartean, «baliteke ETA desagertzea, horixe nahi dugu guk, baina gatazka politikoak iraun egingo du. Guk gatazka konpondu egin nahi dugu, eta ikusten dugun erreze-ta bakarrik elkarrizketaren bidea da», zioen atzo Intxaurragak.

Adierazpenok Bizkaiko EAKo agintariekin izandako jardunaldi baten ostean egin zituen. EAK «alderdi sozialdemokrata» izatera berretsi du, baita abertzalea ere, Euskal Herria «Europako errepublika independente» bat osatzeko helburu duena.

EUSKAL PRESOK. Atzo itzuli zen herrira, Zarautzera



AMAIA ZABALO

Ongietorria egin diote Makazagari

Atzo egin zioten ongi-etorria Xabier Makazaga euskal preso ohiari haren herrian, Zarautzen (Gipuzkoa), Musika Plazan. Jende asko bildu zen bertan antolatutako ekitaldian. Makazaga Frantzian egon da preso, eta ostegunean askatu zuten, Katalunian.



LEA ARTIBAI
Ikastetxea

EUSKAL KALIFIKAZIO SISTEMA
Lanean ari diren langileentzat

Xemein etorbidea, 19 • 48270 Markina-Xemein (Bizkaia)

HOBETUZ-EK %100 EAN DIRUZ LAGUNDUTAKO IKASTAROAK

Ikastaroak	Orduak	Ordutegia	Hasiera	Azkena	Maila
Tornu arrunteko mekanizatua	60	16:00-20:00	29/01/01	16/02/01	2
Elektroteknika	50	16:00-20:00	01/02/01	16/02/01	2
ISO 9000	40	16:00-19:00	01/02/01	20/02/01	3
Muntatze operazioak	190	16:00-20:00	01/02/01	06/04/01	1
Telekomunikazioak harreran	40	16:00-20:00	05/02/01	16/02/01	3
Elektronika industrial	50	16:00-20:00	05/02/01	21/02/01	2
Ekoizpen teknikak	60	16:00-20:00	05/02/01	23/02/01	3
Animazioko jolas eta kirol teknikak (soinketa)	80	16:00-20:00	05/02/01	02/03/01	3
Programazio hizkuntza (VISUAL B)	45	16:00-20:00	07/02/01	21/02/01	3
Multz mekanikoen diseinua	45	16:00-19:00	12/02/01	02/03/01	3
Elektronika digitala	70	16:00-20:00	22/02/01	16/03/01	3
Soldatze Oxiazetilenikoa	45	08:00-12:00	26/02/01	12/03/01	1
Atzerriko hizkuntza, Ingelesa (Oinarritzko maila)	120	16:00-19:00	12/03/01	22/05/01	3
AMFE eta balio analisisa	40	16:00-19:00	01/03/01	20/03/01	3
K.Z. eta K.A.-ko zirkuituak	60	08:00-12:00	01/03/01	21/03/01	2
Sistema Operatiboak Sarean	80	16:00-20:00	01/03/01	28/03/01	3
Hari bidezko elektroerosioa	40	16:00-20:00	05/03/01	16/03/01	2
Testu editorea, Kalkulu Orria eta Datu Basea	40	16:00-20:00	05/03/01	16/03/01	3
Automatismo Hidraulikoak eta Elektrohdraulikoak	40	16:00-20:00	05/03/01	16/03/01	3
Lan teknika eta analisisa: Metodoak eta denborak	40	16:00-19:00	05/03/01	21/03/01	3
Mekanizatu prozesua	40	16:00-20:00	05/03/01	16/03/01	3
Prozesuen egitea fresatzeko makinetan	40	16:00-20:00	05/03/01	16/03/01	3
Telefonia finkoko sistemak	70	16:00-20:00	05/03/01	28/03/01	3
Lan-giroko harremanak	60	16:00-19:00	05/03/01	30/03/01	1
Materialaren eragina eta lubrikazioa makinetan	30	16:00-19:00	12/03/01	23/03/01	3
Makinen osagaiak	60	16:00-19:00	12/03/01	06/04/01	3
Ekoizpen planoen interpretazioa	40	16:00-20:00	19/03/01	30/03/01	2
Prozesuen egitea tornuetan	40	16:00-20:00	19/03/01	30/03/01	3
Automatismo Neumatikoak eta Elektropneumatikoak	40	16:00-20:00	19/03/01	30/03/01	3
PLD's eta Mikrokontrolatzaileak	60	16:00-20:00	19/03/01	06/04/01	3
K.Z. eta K.A.-ko zirkuituetako makina elektrikoak	50	16:00-20:00	22/03/01	06/04/01	2

Interesa izanez gero, jarri lehenbailehen harremanetan Mertxe Aldazabalekin
Tel.: 94 616 91 63 • Faxa: 94 616 92 17 • E-mail: maldazabal@leartik.com

*Euskal Kalifikazio Sistema berriaren araberrak mailak

